

Jasangarritasun txostena

2023ko Urtarrilatik Abendura



BIOSPHERE



GLOBAL
DESTINATION
SUSTAINABILITY
MOVEMENT

Bilbao Convention Bureau

Aurkibidea

Sarrera	4
Bazkideen partaidetza	6
GDS - Index	8
Egindako ekintzak	10
GJHeKin bat egitea	14
KPlen neurketa	16

Dokumentu hau Bilbao Convention Bureauko lantalde osoaren lankidetzari esker prestatu da, eta lantalde osoak izan du haren berri. Horiek horrela, zuzendariak dokumentu hau onartzen eta sinatzen du.

Kepa Olabarrieta




Sarrera

Dokumentu honek jaso egiten du Bilbao Convention Bureau (BiCB) eta enpresa bazkideek 2023an izandako bilakaera jasangarritasunaren esparruan, betiere oinarri hartuta BiCBren Jasangarritasun Estrategia 2021–2027 aldirako, eta 2021–2027 Ekintza Plana.

2023. urtean zehar MICE merkatua egonkortu da pandemiaren ostean. Horri esker, ekimen eta proiektu berriak garatu ahal izan dira jasangarritasunaren alorrean.

2023an fokua jarri da ingurumen jasangarritasuna hobetzen jarraitzean, baina, horrez gain, baita jasangarritasun sozialean aurrera egitean ere, Bilboko bileren eta biltzarren eragin positiboari eta legatuari lotutako proiektuen bitartez.



Bazkideen partaidetza

Gure lan batzorde iraunkorrak, #BilbaoArimaBerdea, zeinean parte hartzen duten Bilbao Convention Bureauko enpresa bazkideetako batzuk eta hiriko ekosistemaren eragile garrantzitsu batzuk, jarraitu du lankidetzan aritzen eta esperientziak, zailtasunak eta jardunbide egokiak partekatzen jasangarritasunaren alorrean, eta horretarako prestakuntzak, noizean behingo bilerak eta #ArimaBerdea LinkedIn plataformako taldea baliatu dira.

Talde hori osatzen dute hotelek, egoitzek eta agentziek, baita tokiko elkarteek, unibertsitateek eta Udaletxeko kideek ere.


Taldeak ekosistema paregabea sortzen du BiCBk jasangarritasunaren esparruan duen ibilbidea osatzeko eta partekatzeko.



GDS - Index


Aldi berean, Bilbok ondoz ondoko hirugarren urtez hartu du parte **GDS-Index** delakoan. Nazioarteko sailkapena da, hiriek MICE helmuga gisa duten jasangarritasuna neurtzen duena askotariko ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-adierazletan oinarrituta.

Bilbok oso puntuazio ona lortu zuen eta 24. postuan geratu zen, sailkapeneko TOP30ean sartu zen eta 9 puntutan hobetu zuen aurreko urteko puntuazioa.




GDS-INDEXaren emaitzak

2022/2023



Bilbo GDSko hirien batez bestekoarekin alderatuta



Egindako ekintzak

Bilbao Convention Bureauk lortu du ekimen batzuk sustatzea enpresa bazkideei eta helmugari berari tresna eta baliabide gehiago ematen dietenak MICE helmuga jasangarriagoa izateko.

- **Karbono-aztarnaren kalkulua** (9.4A ekintza)

Oinarri hartuta MICE ekitaldiek sortutako karbono-aztarna kalkulatzea lortzeko helburu anbiziotsua, parte-hartzaileak kongresuetara eramateko garraioari lotutako karbono-aztarnaren datuak bildu dira, kongresuotan egindako inkesten bidez.

Horrez gainera, neurtu da BiCBren bulegoari dagokion **Karbono-aztarnaren kalkulua lhoberen metodologian oinarrituta, eta jarduerak CO2 emisioetan** duen eragina ere bai.

“Saihestutako CO2 emisioak” adierazlearekin eta Bilboko Udalak neutritasun klimatikoa lortzeko duen konpromisoarekin bat, espero da urratsak ematen jarraitzea horren ildotik, eta bulegoaren aztarna murriztea eta konpentsatzea 2024ra begira.

- **Hondakinen tez ateko gaikako bilketa** (6.2C ekintza)

Udalarekin batera martxan jarri da ekoizle handien hondakin-bilketa hobetzeko eta aldatzeko ekimen bat, Bilboko hogeit hotel baino gehiagotik hasita.

Proiektu pilotuak urtebete iraun du, eta, gero, jarraitutasuna eman zio gaikako bilketa ezarriz atez ate hoteletan eta modu iraunkorrean.

Bilbao Convention Bureauk jarraipena egiten die hotelei eta ekimena sustatzen eta zabaltzen du enpresa bazkideen artean

- **Digitalizazioa eta etengabeko hobekuntza prozesua** (8.1 ekintza)

Bilbao Convention Bureau etengabe hobetzeko prozesuan, eguneratu egin da webgunea, eta baliabide jasangarrien inguruko berrikuntzak sartu dira, barnean hartuta zenbait ekitalditarako egiaztagiria, esate baterako Erronka Garbia, baita karbono-aztarna kalkulatzeko IHO-BEren kalkulagailu berria ere., eta gure nahiz gure enpresa elkartuen prestakuntzak, albisteak eta jardunbide egokiak ere bai. Aldi berean, Bilbao Convention Bureauk tresna jasangarrien portfolio bat sortu du ekitaldiak antolatzen dituzten erakundeentzako.

Gure ingurumen-inpaktua minimizatzeko xedez, utzi zaio inkestak paperean egiteari, eta urte hasieratik aurrera inkesta guztiak digitalki egin dira.

- **Dohaintzak** (4 ekintza)

Aurrera egin da jasangarritasun sozialaren esparruan, lortu baita Gurutze Gorriarekin lankidetzan aritzea dohaintzak kudeatzeko, bereziki altzarienak.

Halaber, kontzientziazio- eta zabalkunde-tailerrak egin dira bilera eta kongresuetako janari-soberakinak dohaintzan emateko soluzioen inguruan, gure bazkide Orekak lagunduta.

- **Egiaztagiria** (3.2 ekintza)

Bilbao Convention Bureauk dirulaguntzen programa bat martxan jarri du hotel, egoitza eta agentzia bazkideek, BiCBrekin batera, BIOSPHERE egiaztagiria eskuratu dezaten.

Egiaztagiri horren oinarrian daude Garapen Jasangarriko hamazazpi Helburuak, eta turismoaren sektoreko erakundeentzako espezifikoa da.

- **Eragin positiboa eta legatua** (8.1 ekintza)

Ahalegina egin da tresna jasangarrien portfolio bat sortzeko, ekitaldiak antolatzen dituzten erakundeek hiriko elkarte gakoek ikuspegia izan dezaten eta aukera izan dezaten ere bai hirian eragin positiboa sortzeko eta biztanleentzako legatua uzteko ekintzak garatzeko.

Horrez gain, Bilbao Convention Bureau bat egin du Eragina Neurtzen Ikasteko Komunitatearekin, **ESADE y BBK- Kuna**, antolatutako ekimenarekin, hain zuzen, erakundeari gaikuntza emateko Bureauk gauzatzen eta sustatzen dituen eraginezko ekintzak monitorizatzeko eta neurtzeko.

- **Adierazpena “2030 Agenda Kontratu Sozial baterako”** (8.1B ekintza)

2021ean, Euskadi 2030 Agenda Foroa eratu zen, agente anitzeko eta erakundearteko gobernantza-eremu gisa, eta 2022ko irailean, Nazio Batuek erabaki zuten 2030erako Tokiko Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza orokorra Euskadin kokatzea, zehazki Bilbon.

2023an, Euskadi 2030 Agenda Foroak urratsak ematen jarraitu du GJHen aldeko Euskal Aliantza eratzeko, “Euskadi 2030 Agenda Kontratu Sozial baterako” adierazpenaren bidez. Adierazpen horrek 2030 Agendaren inguruko konpromiso eta inplikazio batzuk jasotzen ditu. Bilbao Convention Bureau beste 50 euskal elkarterekin batera atxiki da, 2030 Agendarekiko konpromisoan aurrerapausoak ematen jarraitzeko.

- **Prestakuntzak** (1.4 ekintza)

Nabarmendu behar da BiCBk etengabeko prestakuntza ematen diela langileei barne-mailan, eta, bestalde, prestakuntza irekiak eskaintzen dizkie enpresa bazkideei online plataformen bidez, hala nola Anfitorioiak eta aurrez aurreko prestakuntza Bilbon ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunean.

2023an, Bilbao Convention Bureau GDS Movement-en eskutik antolatutako tailerra nabarmendu behar da, “Bilbo Ekitaldi Jasangarrien Foro” izateari buruzkoa. Bilboko MICE sektore osoarentzako jardunaldi oso bat izan zuen, eta Alex Carrascosak “Garapen Jasangarriaren Helburuak” izeneko prestakuntza eman zien BiCBko langileei eta enpresa bazkideei.



GJHekin bat egitea

Erabaki guztiak hartzeko orduan asmoa izan da Jasangarritasun Estrategian definitutako GJHekin bat egitea.

Gainera, Bilbao Convention Bureau Glasgowko Deklaraziora eta GJHen aldeko Euskal Aliantzara atxiki da.

- **Karbono-aztarna kalkulatzeko**



- **Etxekoak ez diren hondakinen gaikako bilketa eskariaren arabera**



- **Askotariko prestakuntzak**



(Jasangarritasun Politika agentzientzako, elikadura jasangarria, materialen erabilera eta ekonomia zirkularra)

- **Elikagaien eta materialen dohaintzak**



- **Eragin positiboko eta legatuari lotutako askotariko ekintzak**



- **Webgunea eguneratzea**





KPlen neurketa

Ingurumeneko KPlak


• Karbono-aztarna

Bilboko Udalak klima-neutraltasuna lortzeko hartutako konpromisoaren ildotik, BiCBtik aurrera egiten ari gara karbono-aztarnaren neurketan eta konpentsazioan, gure jardueraren honako segmentu hauetan:

- BiCBren bulegoko KA 2023an
1., 2. eta 3. irismenen arabera kalkulatu da **12,02 t_{eq} CO₂**
- KA konpentsatua Famtripetan
Garraioaren eta ostatuaren emisioak kontuan hartu dira **5,54 t_{eq} CO₂**


• Kongresuetan parte hartzen duten pertsonen mugikortasuna

Kongresuetan parte hartu zutenen % 69,5 garraio publikoan edo oinez joan ziren.




• Ingurumen-jasangarritasuna, kongresuak antolatzen dituztenen arabera

Antolatzaileei egindako inkesta, Bilboko MICE segmentuaren jasangarritasunarekiko konpromisoari buruz:



Jasangarritasuneko ziurtagiriei/politikek destino bat aukeratzeko edo hornitzaileak kontratatzeke orduan duten garrantziari buruz antolatzaileei egindako inkesta:



KPI sozialak

● **Prestakuntza**

2023an, BiCBk 66 pertsonari eman zien prestakuntza, BiCBko langi-leentzat, enpresa bazkideentzat eta Bilboko MICE ekosistemarako antolatutako jardunaldien bidez. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- “Bilbo Ekitaldi Jasangarrien Foro gisa” gaiari buruzko egun osoko workshopa, GDS Movement-ek emana.
- Garapen Jasangarriko Helburuei buruzko prestakuntza, Alex Carrascosak emana..

● **Irisgarritasuna**

Bilbon antolatutako kongresuetako parte-hartzaileek 5 puntutik 4,69 eman zioten hirian irisgarritasunari dagokionez antzemandako konpromisoari.


● **Inklusioari dagokionez**

Kontratazioaren esparruko inklusioari eta berdintasunari dagokionez, kongresuen antolatzaileek balorazioetan puntu gutxi eman zuten aniztasun funtzionala duten nahiz gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen kontratazioa sustatzeari lotuta.

Jasotako balorazioen ondorioz, inklusio-politikak dituzten erakundeek kontratazioa sustatzen ari da ekitaldiak antolatzen dituztenentzat prestatutako tresna jasangarrien portfolio baten bitartez.

● **Eragin positiboko ekintzak**

Antolatzaile gehienek ez zuten eragin positiboko ezein ekintzarik proposatu ekitaldia diseinatzean; alabaina, nabarmendu behar da adierazle horren balioa 7 puntu areagotu dela aurreko aldiarekin alderatuta.



KPI ekonomikoak

Bilboko kongresuetako parte-hartzaileen eta haiekin joan zirenen zuzeneko gastuaren inpaktua 2023an 254 milioi € baino gehiagokoa izan zen.

Delegatu eta egun bakoitzeko batez besteko gastua 363,73€koa izan zen.



<https://bilbaoconventionbureau.bilbao.eus/>



bicb@bilbaoturismo.bilbao.eus



+34 944 79 57 70

Bilbao Convention Bureau